

13/01/2010

Baserria eta inguruei buruzko tailerra museoan

Larunbat honetan ere, eta eguraldiak uzten badu behintzat, familientzako tailer didaktikobat ospatuko da Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Baserri Museoan. Ez da lehenengo aldia hau aurrera eramaten dela eta gustora har-tzen dute gaztetxoek, beraz Baserria eta bere ingurunea hobeto ezagutzeko aukera zabalduko dute oraingoan interpretazio zentruan.

Tailer hau aurrera eramateko maketa didaktiko berria estreinatu zuten aurreko aurtean umeez eta oraingoan noski, honekin ibiltzeko aukera ere izango dute.

Tailer honetan, eta Igartubeitiko arduradunek azaltzen dutenez, baserria eta bere ingurunea errepresentatzen duen maketa interaktiboan pieza desberdinak kokatzen dituzte: artaldea, sagastiak, hariztiak, pinudiak, txondorrak, karobiak, etxolak, lantegiak, baserriak, kanpandorreak... hau zenbait dinamika-jokoen bitartez egiten dutelarik: galdera-erantzun, piktionari, frogak eta abar. Honela, modu bisual batean mendez mende paisaiaren eraldaketaz jabetzen dira gazteek.

Orduategia

Tailerra arratsaldeko 16:30ean hasiko da eta bi orduko iraupena izango du. Ospatzen diren tailer didaktiko guztiak bezala hau ere doakoa izango da.